


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**FAMILIEK IKAS KOMUNITATEETAN
DUTEN PARTE HARTZEAREN GAINEKO
HAUSNARKETA, ETA BALIZKO LAN
ILDOAK KASU ERREAL BATERAKO**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Rejado Vigalondo, Jon.

ZUZENDARIA: Ibarrola Aguirre, Jose Antonio.

2021

Laburpena

Ikasleen familiek horien hezkuntza ibilbidean duten garrantziaz maiz hitz egiten da. Itzal hori ulertzeko hamaika modu daude, baina: ikastetxearen aukeraketatik hasita, ikasleen beraien ebaluazioetan aktiboki parte hartzeraino, ikastetxeko egunerokoan erabakitzeko aukeratik pasatuz, besteak beste. Ikas Komunitateen proiektuak familien parte hartze hori beste maila batera eramaten du; partaidetza hori txertatzen dute ikastetxearen zein horren inguruaren eraldaketa sozial eta kulturalaren prozesu baten barruan. Horretarako hezkuntza dialogikoa baliatzen du, hezkuntza komunitateko eragile guztien parte hartzea aintzat hartuta. Bada, lan honetan, aipatu proiektuaren atzeko oinarri teorikoa birpasatzeaz gain, Aranbizkarra Ikas Komunitatean izenburuan azaltzen den bidean sakontzeko aukerak aztertuko dira. Horretarako, familien parte hartzearen gainean zenbait Ikas Komunitateren hausnarketak jasoko dira. Horiek aztertuz, eta Aranbizkarra Ikas Komunitateko errealitatea aintzat hartuta, interesgarriak izan daitezkeen proposamenak xehatuko dira.

0. AURKIBIDEA

0. Aurkibidea	2
1. Sarrera eta justifikazioa	3
2. Familien parte hartzea, Ikas Komunitateak eta Aranbizkarra ----	4
2.1. Familia-eskola harremana: zergatik, zertarako, eta nola? ----	4
2.1.1. Oinarrizko kontzeptuak	4
2.1.2. Familiek eskolan parte hartzearen garrantzia	6
2.1.3. Familien parte hartze motak	9
2.1.4. Araudia	10
2.2. Ikas Komunitateak eta familien parte hartzea	13
2.2.1. Ikas komunitateen sorreraren testuingurua	13
2.2.2. Ikas Komunitateen oinarri teorikoa	14
2.2.3. Hezkuntza jarduera arraskatsuak IKetan ¹	20
2.3. Aranbizkarra Ikas Komunitatearen egoera	24
3. Helburuak	27
4. Metodoa	28
5. Emaitzak	30
6. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak	37
7. Eranskinak	41
7.1. Bibliografia eta internetgrafia	41
7.2. Galdetegiak	47

¹ Ikas Komunitateetan

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Familia eta eskola. Eskola eta familia. Hezkuntza komunitateetako bi eragile horien arteko harremanak eztabaida eta ikerketa ildo askoren iturri dira. Harreman horrek askotariko ikuspuntuak izan ditzake, lan honetan azalduko dugun bezala: parte hartze motak, horren eragina ikasleengan.... Hezkuntza sistemaren araudiak berak aintzat hartzen du familiek eskolan duten parte hartzea, baita horren baliagarritasuna ere hamaika ardatzetan. Are, Espainiako legeak arreta jarriz joan dira arlo ezberdinetan, arau horien egileen pentsaeraren arabera. Eremu gertuari so eginda, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak baliabide garrantzitsutzat jotzen du familien parte hartzea eskola inklusiboan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko; zailtasun horien aurrean eskola eta familia-ingurunea elkarrengandik ahalik hurbilen egoten saiatzea "metodo bikaina" dela hausnartzen du, *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna* web orrialdean.

Araudiak aipatu bi eragileen arteko harremanari buruzko iradokizunak jaso arren, ikastetxe bakoitzak modu ezberdinean ulertzen eta garatzen du hori, bere errealitateari eta helburu pedagogikoetara egokituz. Edonola ere, egon badaude harreman hori lan ildo gisa hartzen dituzten hezkuntzako berrikuntza proiektuak. Proiektu pedagogiko horietako batean jarriko du arreta lan honek: Ikas Komunitateetan. Are, kasu errealak aztertuz, Aranzabizkarra Ikas Komunitateko familien parte hartzerako lan ildo berrietarako aukera aztertzea du helburu nagusi.

Lanaren muinean bizipen pertsonal bat dago. Lanaren egileak Aranzabizkarra Ikas Komunitatearekin duen harremana aspaldikoa bada ere, 2019-2020 ikasturtean Familien Formaziorako Programako koordinatzaileetako bat izan zen. Garai horretan, zuzendaritzarekin harremanean, gurasoen parte hartzearen inguruan luze hitz egin zen, eta balizko aukera batzuk aztertu ziren. Edozer erabaki aurretik, baina, Covid-19ak hankaz gora jarri zuen mundua, eta, ondorioz, Aranzabizkarra Ikas Komunitatea bera ere.

Bada, orduan antzemandako beharretik, beste Ikas Komunitate batzuetan egiten den lanaren berri jasoaz, lan hau jaiotzeko da etorkizunera begira baliagarriak izan daitezkeen proposamenak jasotzeko asmoarekin.

Proposamenak itxaropenean oinarrituta daude; hots, ez dute fokua Covid-19ak eragindako ezohiko larrialdi egoeran arreta jartzen, baizik eta balizko normaltasuna heltzen den unean egin ahalko diren ekintza edo jardueratan.

2. FAMILIEN PARTE HARTZEA, IKAS KOMUNITATEAK ETA ARANBIZKARRA

2.1 Familia-eskola harremana: zergatik, zertarako, eta nola?

2.1.1 Oinarrizko kontzeptuak

Abiapuntu gisa, egokia izan daiteke lan honetan mintzagai izango ditugun kontzeptuen definizio arin bat egitea. Lehen **ikasle adingabea** da, lan honen hari nagusia, baina, aldi berean, estalien geratuko dena. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak honela definitzen du **ikasle** hitza: "Ikasten ari dena, bereziki ikastetxe batean edo irakasle batengandik eskolak edo irakaspenak hartzen dituen". Halaber, honela definitzen du **adingabe**, bigarren adieran: "Adin-nagusitasunera heldu ez den pertsona". Horrenbestez, lan honetan honela definituko dugu aipatu kontzeptua: hezkuntza erakunde batean ikasketa formalak egiten dituen adingabea, esku artean dugun kasuan 0-12 urte artekoa. Definizio laburra ematen badu ere, nabarmentzekoa da "adingabe" kontzeptua, horrek baldintzatuko baitu gerora aipatuko den guztia. Izan ere, adingabeek eskubide batzuk aitortuak dituzte 1959ko Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Aldarrikapenean, baita, besteak beste, horiek bermatzeko 1989ak geroztik sinatutako bi protokoloetan ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zenetik. Eskubide horien artean lan honen testuinguruari dagozkion bi daude: hezkuntzarako eskubidea eta parte hartzerako eskubidea.

Familia kontzeptuak, lan honen bigarrenak, helduleku asko izan ditzake (Camino eta Murua, 2012): antropologikoa, soziologikoa, psikologikoa... Hezkuntzaren ikuspuntutik, baina, familia lehen mailako sozializazio prozesuko eragilea da. "Eragile nagusizat" jo dute aipatu autoreek. Gifre eta Estebanek (2012) gogora ekarri dute Bronfenbrenner-en (1992) teoria ekologikoa, eta familia haurraren inguruan dagoen mikrosistemetako bat dela gaineratu dute, adingabearekin elkarreraginean: familiak umean eragiten du, baita umeak familian ere.

Hirugarren kontzeptua **eskola** da. Ikuspuntu kontzeptual batetik, Caminok eta Muruak jasotakoaren arabera (2012), eskola "irakasle eta ikasleen bilgunea" dela esan daiteke, non "batzuek irakatsi eta besteek ikasteko asmoa" duten; "hezi edo irakasten den leku edo eraikina" bezala ere uler daiteke. Ordea, erakunde gisa hartuta ere definitu daiteke eskola "prestakuntza kolektiborako" espazio bezala, edota "erakunde sozial hezgarri" gisa. Bronfenbrennerek (1992) mikrosistema moduan ere jasotzen du.

Bada, Bronfenbrenneren teoriarekin jarraituz, orain arte aipatutako kontzeptu horiek, familiak eta eskolak (eta, ondorioz, haur ikasleak berak ere), elkarreragiten dute umetik koska bat gehiago urruntzen den sistema batean: mesosisteman. Harreman hori pertsonen artekoa da, baina are urrunago dagoen sistema batek, exosistemak, eraginda: ikastetxearen irizpide pedagogikoak, gurasoen ordutegiak... Aipatutako mikrosistema horien arteko harremanak, elkarreraginak, askotarikoak izan daitezke, baina, hein handian, batzuen eta besteen parte hartzean oinarritzen dira.

Beste mikrosistemek, eta exosistemek eragiten dute pertsona bakoitzaren garapen prozesuan: haurraren parekoak, hedabideak, bizilagunak, bestelako gizarte zerbitzuak, enpresa, gurtza zentroak, kirol klubak... Ordea, aurrez aipatu ditugun horietara mugatuko gara.

De Leonek (2011) familia eta eskola sozializazio agente garrantzitsuenak direla gogorarazi du, umea herritar bihurtzeko bidean. Are, ikuspuntu tradizional batetik, familia lehen sozializazio agente gisa kokatu du. Ordea, gaineratu du familia ereduak aldatuz joan dela gizartea aldatu ahala, eta horrek lausotu dituela familia eta eskolaren erantzukizun eta arduren arteko mugak. Ildo beretik mintzatu dira Camino eta Murua (2012); sozializazio agente bakoitzaren arduren zehaztapen falta horrek bien arteko "jokabide ezegokiak" eragin ditzakeela azaldu dute. Aipatu autoreek gaineratu dute eztabaida nagusiak gertatzen direla historikoki familien ardurapean egon diren arloetan: erlijioa, gizalegeko jokabidea, baloreak, sexualitatea...

Aurretik esandako horrek azken kontzeptura gerturatzen gaitu: **parte hartzea**. Hitzaren etimologia zein definizioek zerbait dute komunean: parte hartzean 'zerbait' partekatzen da, eta 'zerbait' partekatzen denean komunitatea sortzen bada, parte hartzea eta komunitatea hertsiki lotuta egon beharko liriteke (Ministerio de Educacion, Cultura y Deporte, 2014). Mintzagai

dugun arloan, ikasleen familiek eskolan duten parte hartzea, komunitate horren muina eremu fisiko batean egongo litzateke: ikastetxea. Are, parte hartze hori modu askoan uler daiteke. Aurrerako helduko diogu horri.

2.1.2 Familiek eskolan parte hartzearen garrantzia

Esan bezala, eta hainbat autorek iradoki dutenaren arabera, familia-eskola harremana aldatuz joan da denborarekin. Azken hamarkadetan lausotuz joan dira bien funtzioen artean zeuden muga historikoak (Egido, 2015). Hala eta guztiz ere, funtsezko garrantzia mantentzen dute biek, eta bien arteko harremana eta lankidetzaren beharra nabarmendu du autore horrek. "Familiak eta eskolak helburu komuna dute, pertsona heztea, bakarra den pertsona, eta koherentzia eta jarraipena topatu behar du bi testuinguruen artean".

Bronfenbrennerren teoria ekologikoa berreskuratuta, Egidok (2015) harreman motak nabarmendu ditu, zeintzuk maila ezberdinetan gertatzen diren. Batetik, gogora ekarri du familia barruan badaudela umearen garapena eta ibilbide akademikoa baldintzatzen duten harreman-moldeak: etxeko hizkuntza, afektibitatea, diziplina, kontrola... Horiek aldakorrak dira, eta zaila da bertan eragitea, dela eskolatik zein beste erakundeetatik. Ordea, bestetik, teoria ekologikoaren arabera, familiaren eta eskolaren arteko harremanak egon badaude; bada, horiek haurraren garapenean eragiten dute, eta, hain zuzen ere, harreman horietan esku hartzeko aukera dagoela nabarmendu du aipatu autoreak.

Harreman mota horiek laburbiltzean, Egidok 1980ko hamarkadan abiarazitako ikerketa ildo bat azpimarratu du familia-eskola harremanari buruz, ikastetxearen testuinguruan. Ikerketa horietatik zenbait ondorio atera zituzten: batetik, ikasgelako egoerari buruzko informazio gehien zuten, eta irakasleekin harreman handiagoa zuten gurasoen seme-alabek emaitza akademiko hobek zituzten; bestetik, arrakasta duten eskoletan, gurasoek eskolako bizitzan presentzia handia dute, eta bertan aktiboki parte hartzeko joera dute. Egidok emaitza horien garrantzia nabarmendu du, ez baititu ikasleen emaitzak mugatzen familien testuinguruari, non eskolak nekez eragin dezakeen.

Ikerketa gaurkotuago batzuk beste ildo batean jarri dute arreta: ikasleen arrakastak lotura handiagoa du horien familiek haien hezkuntzarekin duten

konpromisoarekin eta iguripenekin (Gonzalez, Reparaz eta Sanz, 2016). 1980ko hamarkadako ikerketari beste dimentsio bat eman arren, orduan agertzen zen ildo batean sakontzen du aipatutako azken azterlan horrek: konpromiso horiek landuta ikasleen emaitzak hobetuko dira, testuinguru soziokulturala dena delakoa. Are gehiago Grañeras, Gilek eta Diaz-Cañejak (2011) ideia hori berretsi dute: "Ebidentziak daude, non erakusten den senideen prestakuntza eta komunitatearen parte hartzerako programa batzuk eragin duten ikasketa maila baxuko familien seme-alabak aparteko emaitza akademikoak izan ditzaten".

Azkenik, emaitza akademikoak ez ezik, familien parte hartzea baliagarria da ikasleak gizarte demokratiko bateko kide izan daitezen hezteko. Verdejak (2019) bide horretan aurrera egin du, Paulo Freireren ekarpenak gogora ekarriz. Eskola demokratiko batek ikasleen testuinguruetara irekia egon behar duela nabarmendu du, horrek nolabait eskola eta familien arteko botere oreka berdintzen baitu. Freirek (2012) eskola demokratikoak izan behar duen apaltasuna ekartzen du gogora, eskolatu ez direnengandik ere ikasi dezakeela aitortzeko.

Grañeras, Gil eta Diaz-Cañejak (2011) ikasketa maila baxuko familiei egindako aipamen hori zuzenean lotzen da Weiss, Bouffard, Bridglall, eta Gordonek (2009) familien parte hartzearekin lotuta egindako ikerketen eta literaturaren azterketarekin. Babesgabetasun egoeran dauden edota gizarte sektore minorizatuen familiek eskolan parte hartzeko zailtasunak eta laguntzak aztertu ondoren, autore horiek ondorioztatu dute, hezkuntza ekitatea lortze aldera, familien parte hartze jarraitua beharrezkoa dela, esparru ezberdinetan. Ildo horretan, gaineratu dute, oro har, babesgabetasun egoeran dauden edo minorizatutako gizarte taldeen familiek eskolan parte hartzeko jarrera ezkorragoa izan ohi dutela: gurasoek eskolarekin izandako harreman ezkorragatik haurtzaroan, irakasleen aurreiritziengatik, edota hezkuntza profesionalen prestakuntza faltagatik familien parte hartzea sustatzeko.

Hori gainditzeko, eta familien parte hartzea, Weiss, Bouffard, Bridglall, eta Gordonek (2009) lau printzipio ondorioztatu dituzte:


1. Politikek eta bestelako inbertsioek familiaren parte hartzea sustatu behar dute, bertan zeresana dutenen zein gizartearen erantzukizun partekatu eta esanguratsua den heinean.

2. Familiaren parte hartzea beharrezkoa dela ulertu behar da, baina ez nahikoa hezkuntza-arrakasta lortzeko; hots, hezkuntza sistema integral baten barruan egon behar du.

3. Familiak parte hartzeko ahaleginek garapenaren ikuspegitik jardun behar dute, eta ikaskuntzaren funtsezko testuinguruetan etengabeko parte-hartzea sustatu behar dute.

4. Familiak parte hartzeko ahaleginek sistemaren barruan egon behar dute, eta iraunkorrak izan behar dute.

Adostasun zabala dago familia-eskola harremanaren eragin positiboan. Edonola ere, hori zenbakietan jartzea zaila dela zehaztu dute beste autore batzuk. Batetik, familiak eskolan parte hartzeko moduak era askotan uler daitezke (Desforges eta Abouchaar, 2003): etxean egiten den heziketa, etxerako lanekin laguntzea, irakasleekin hitz egitea, eskolako ekintzetan parte hartzea, edota eskolako gobernu organoetan parte hartzea, adibidez.



1. Taula. Haurraren lorpenetan eragiten duten indar batzuk (Desforges eta Abouchaar-en taulatik egokitua, 2003),

Bestetik, eskolako emaitzetan eragin dezaketen bestelako aldagaiak ere egon badaudela azaldu dute. Adibidez, familien maila sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) kontuan hartzeko moduko aldagaia dela hausnartu dute, parte hartzea eta ISEKa lotuta egon baitaitezke, aurretik ikusitakoaren ildotik. Edonola ere, esan bezala, Desforges eta Abouchaarek (2003) aitortzen dute gurasoen parte hartzeak, orokorrean hartuta, "eragin handia" duela haur ikasleek lortzen dituzten emaitzetan eta egokitzapenean. Azkenik, haurren emaitzetan indar askok eragiten dute (ikusi 1. Taula).

2.1.3 Familien parte hartze motak

Esan bezala, familiek eskolan duten parte hartze motak askotarikoak izan daitezke. Europako Batzordearen VI. Esparru Programarena eskola-
hezkontzari buruzko Includ-ED proiektuan (2011) mota horiek ikertu zituen, eta bost multzotan bereizi zituzten, harreman horiek gertatzen ziren "eremu eta mailaren" arabera. Honakoak dira bost parte hartze motak, eta horien deskribapena:

1. Informatiboa: Familiek ez dute ikastetxeko erabakietan parte hartzen. Aurrez hartu diren erabakiak jakinarazten dizkiete familiei: ikastetxeko ekintzak, funtzionamendua, erabakiak... Bilerak informazio hori ezagutaraztera bideratzen dira. Eredu honetan bezero gisa hartzen dira familiak; erakundetik kanpo dauden pertsonak.

2. Kontsulta harremana: Familiek erabaki botere mugatua dute, eta kontsultetara mugatzen da. Ikastetxeko gobernu organoen arabera bideratzen da parte hartze hori. Ikerketa batzuen arabera, parte hartze maila hau nolabaiteko ikasketa maila duten familiei irekita dago, baina ez familia guztiei.

3. Erabakitzaila: Familiek erabakitzeko prozesuetan parte hartzen dute, ikastetxeko erabaki organoetan duten ordezkaritza bitartez. Familiek eta komunitateko kideek eskolaren kontu ematea gainbegiratuko dute, emaitza akademikoei dagokienez; hots, ikastetxeko kontuen gaineko gaiak erabakietatik at geratzen da. Includ-ED txostenaren arabera, parte hartze honek ikastetxeei bermatzen die itzaropen handiak eta kalitatezko heziketa lehenetsuen artean izango dutela.

4. Ebaluatzailea: Familiek ikas prozesuetan parte hartzen dute, haurren aurrerapenak ebaluatzeko prozesuan parte hartuz. Halaber, eskolako

ebaluazio orokorrean parte hartzen dute. Ez dago oso zabaldua, baina Txipre edo Estoniako ikastetxe batzuetan egiten da, legearen babesarekin.

5. Hezitzailea: Familiek bi modutan parte hartzen dute: haien seme alaben prestakuntzan, baita familiako kideen formakuntzan ere, bai eskola orduetan bai ordutegi horretatik kanpo. Lehen ardatzean, ikastetxeko jarduera hezitzaileetan parte hartzen dute, ikasgela barruan, askotariko ereduak eskainiz testuinguru horretan, talde heterogeneoak ahalbidetuz. Bigarren ardatzean, familiek erantzuten diete haiei dagozkien prestakuntza beharrei, elkar harremanak erraztuz.

Includ-ED proiektuaren arabera (2011), parte hartze eredu horien artetik arrakasta lortzeko bidean gehien laguntzen dutenak azken hirurak dira: erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Ikerlanean ondorioztatu dute parte hartzeko modu horietan familiak hein handiagoan inplikatzeko direla ikastetxean, eta eragin handiagoa dutela bertan hartzen diren erabakietan.

2.1.4 Araudia

Lehenik eta behin, egoki ikusten dugu familiek eskolan duten parte hartzea arautzen duen legediari begirada arin bat ematea, Araba, Bizkai eta Gipuzkoa eragin eremutat hartuta. Halaber, parte hartzea ulertuko dugu eskola funtzionamenduan nolabait eragitearekin duten elkarrekintzak bezala; hots, ez ikastetxe baten aukeraketa soil. Unesco eta Europako Batasunaren araudian ez dugu familien parte hartzea arautzen duen ezer antzeman, baina bai, ordea Espainiako Konstituzioan, 27 artikuluko 7. puntuan. Bertan jasotzen da irakasle, guraso, eta, dagokienean, ikasleek parte hartuko dutela "administrazioak herri ondasunez ordaindutako ikastetxe guztien kontrol eta gestioan".

Hezkuntza araudiei dagokienez bilakaera historiko bat egon da, gaur egunera arte. 1970 Espainiako Ley General de Educacion-en gurasoen parte hartzerako tresna bat jaso zuen: Ikasleen Gurasoen Elkarteak. Bertan aipatutakoan sakondu zuten 1980.eko lege aldaketan, baina betiere parte hartzea erabaki organoetan presentzia izatearekin lotuta. 1985ean, LODEan, IGE²-en ildo mantentzeaz gain, parte hartzea ikuspuntu didaktiko batetik ere jaso zuten, gurasoen betebeharren atalean. Bertan, ikastetxeek familiekin ezartzen

² Ikasleen Gurasoen Elkarteak

dituzten "konpromiso hezitzaileen mesedetan aktiboki" parte hartzea jasotzen da, "seme-alaben errendimendua hobetzeko".

Lege aldaketa horiek norabide bat ezartzen hasi ziren, eta gaur egunera arte mantendu da: gurasoen parte hartzea agintaritza organoetan, baita ikasleen hezkuntzari aitortutako bestelako helburu eta funtzioetan parte hartzea ere. 1990ko LOGSEn familia eta eskolen arteko "lankidetzaren" aipatzen da, besteak beste.

Horrek guztiak gaur egungo araudietara ekarri gaitu. Lerrook idazten hastean indarrean zegoen araudia (LOMCE), eta Espainiako Kongresuan 2020ko abenduan onartu zen lege aldaketaren (LOMLOE) pasarte batzuk jasoko ditugu. LOMCEk arreta berezia jarri zuen familiek zuten erabakitzeko eskubidean: ikastetxea, ikasgaiak, hizkuntza... Aldiz, hezkuntza eragileen arteko lankidetzaren garrantzia urardotua zegoela esan daiteke. Aipatu legean beharrezkotzat jotzen zuten ikasle, familia eta eskolaren arteko oreka eta indarrak berreskuratzea. Are, familiak seme-alaben hezkuntzan lehen arduradunak direla aipatzen zuen, eta horregatik hezkuntza sistemak familia aintzat hartu behar dituela, eta haren hautuetan konfiantza izan.

LOMLOEn, aldiz, tonua aldatu da, eta familien erabakitzeko eskubide hori apaldu, eta indar gehiago jarri da familien beste mota bateko parte hartzean, ikuspuntu pedagogikoago batetik, nolabait esateko. Besteak beste, irakurzaletasuna sustatzeko neurrietan familien eta borondatezko kideen parte hartzea jaso dute, aurreko araudiak egiten ez zuen zerbait. Indarrean dagoen araudian eskola arrakastaren ardura ez da uzten ikaslearen sorbaldetan. Pisu hori familiengan ere dagoela gaineratzen du, baita irakasleengan, ikastetxeengan, hezkuntza administrazioengan, eta, azkenik, gizartea bere osotasunean duen inplikazioan ere. Ildo horretan, nabarmentzen du hezkuntza komunitateko zein gizarte osoaren konpromisoa kalitatezko hezkuntza bermatzea dela.

Eremu gertuago batera gerturatuz, 1993ko EAeko Euskal Eskola Publikoaren legeak, eta 2008an egindako legearen aldaketak, Espainiako lege orokorretatik edaten du, hein batean. Ezin da ahaztu Espainiako Kongresuak onartutako lege organikoak EAEn ere betetzekoak direla, egoera horri Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen eskumenak urratzea leporatu zaion arren. Edonola ere, bere eskumenen barruan, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautu ditu IGEak

baita Ordezkaritza Organo Gorenak ere; IGEen araudia 1987koa da, eta OOGena 2007koa.

EAEko curriculum dekretuetan eta hezkuntza eredu pedagogikoen markoan garatzen da gehien gurasoen parte hartzea, ikuspuntu didaktiko eta pedagogiko batetik. Heziberri 2020ren hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa argigarria da, familia eta eskolaren arteko harremana zehazterakoan. Eskola inklusiboa buruan, ikasleen familiekin elkarlanean jardutea proposatzen du, eskola ingurunea eta familia ingurunea elkarrengandik "ahalik eta hurbilen" egotea bilatuz. Are, gaineratu du "zalantzarik gabe" lankidetzat hori ikasleen ikaskuntza erraztu eta hobetzeko baliabidea dela. Lankidetzat horretarako funtsezko elementutzat jotzen da familiek "ahal beste" informazio izatea, "erabakitasunez" parte har dezaten haien seme-alaben ikastaldian.

Bestetik, ideia hori iragazten da Haur Hezkuntzako 2015eko curriculum dekretura (19. Artikulua), baita Derrigorrezko Hezkuntzako 2015eko curriculum dekretura ere (29. Artikulua). Are, gurasoen parte hartzea nolabait arautzeaz gain parte hartze hori ahalbidetzeko prestakuntzaren garrantzia ere jasotzen dute bi araudiek. Familiek parte har dezaten eta elkarlana egon dadin ikastetxeen eta familien artean, ikastetxeek eta guraso-elkarteei prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izango dituztela jasotzen du, bai gurasoentzat, tutoreentzat zein legezko tutoreentzat.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Heziberri 2020 Oinarrizko Hezkuntzaren oinarriek eta xedeek gogora ekartzen dute, hein handian, Ejidok (2015) zenbait ikerketetan aurkitutako emaitzak, 4.1.2. atalean aipatutakoak. Marko pedagogikoak jasotzen du Oinarrizko Hezkuntzak hezkuntza eskubidea bermatu behar duela, eta, zuzentasun eta justizia sozialaren planteamendu etiko batetik aukera berdintasuna eskaini, inolako bazterketarik gabe. Are gehiago, desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak "konpentsatu" behar dituela gaineratu du. Horri gehitzen dio hezkuntza eragile guztien ardura dela asmo horretan laguntzea, dela eskolan dela "eskolaldiaz kanpo"; hots, aipatu agiriak "komunitate" izaera aitortzen die familiei, eskolari, administrazio publikoei, tokian tokiko gobernuei, hedabideei, elkartei, eta gizarte eta kultur erakundeei; hezkuntza prozesuan eskolak bere funtzioa hezkuntza eragile guztiekin partekatzen duela zehazten

du, "komunitate hezitzailearen" eredura joaz. Bada, Ejidok komunitatearen parte hartze hori antzematen zuen arrakasta zuten ikastetxeetan.

2.2 Ikas Komunitateak eta familien parte hartzea

2.2.1. Ikas komunitateen sorreraren testuingurua

Ikas Komunitateak asmo batekin jaio ziren: gizartearen paradigma aldaketa batean sortutako egoerari heltzea (Flecha, Padros eta Puigdellivol, 2003). Gizarte industrialetik informazioaren gizarterako jauzian ikasteko modua aldatu zela hausnartu dute aipatu hiru autoreek: ikasgela barruan gertatzen zenarekin bainoago, ikasketa prozesua lotuagoa zegoen pertsonen artean sortzen ziren interakzioekin. Testuinguru horretan, garrantzitsuagotzat jotzen zituzten hausnartzeko edota argudiatzeko gaitasunak, datu asko gogoratzeko ahalmena baino. Are, hiru autoreek nabarmendu dute argudiatzeko edota iritzi kritikoa izateko gaitasunaren garapena bereziki beharrezkoa dela ikastetxeetan non familia gehienek ez dituzten unibertsitateko ikasketak.

Ildo horretan, Flechak, Padrosek eta Puigdellivolek (2003) gogora ekarri dute, CREA Bartzelonako Unibertsitateko Community of Research on Excellence for All ikerketa zentroaren arabera (1998), informazioaren gizartearen hastapenetan ezarritako oinarriek desoreka eragin zutela gizartean, baita hezkuntzan ere. Horren aurrean, eskola "eraldatzeko" proiektutzat hartzen dituzte Ikas Komunitateak, komunitate osoak parte hartzen duten zentroak sortuz, ikasleei aukera berdintasuna sustatzeko eta informazioaren gizartetik baztertuak ez izateko hezkuntza bat eskaintzeko.

Ikas Komunitateen proiektua zientziak babestutako jarduerak baliatuta jaio zela gogorarazi dute Racionerok eta Serradellek (2005). Hau da, hezkuntza zientzien zein gizarte eta psikologia zientzien arloetako nazioarteko komunitate zientifikoak egiaztatutako "hezkuntza jarduera arrakastatsuak" baliatzen dituzte: "Ikaskuntza instrumentala eta dialogikoa erreferentziatzat hartzen dituzte gaitasunak eta elkartasuna areagotzeko baliagarriak izan diren teoria eta praktika inklusiboak, berdintasunezkoak eta dialogikoak," (Racionero eta Serradell, 2005, 30. o.).

Ildo horretan, aipatzekoa da aurreko atalean Includ-ED proiektua (2011), Europako Batzordearen VI. Esparru Programarena, eskola-hezkuntzari

buruzkoa. Hamahiru unibertsitatek edo ikerketa gunek aztertu zuten ze hezkuntza estrategiek laguntzen zuten desberdintasunak gainditzeko, eta gizarte kohesioa indartzen, batez ere babesgabetasunean edo egoera zaurgarrian zeuden taldeetan arreta jarrita. Ikerketak 60 hilabete iraun zituen, CREAren gidaritzapean. Bada, ikerketa proiektu horretan Ikas Komunitateetan defendatutako esku hartzeak berresten zituen, batez ere bi ildotan: taldekatze heterogeneoak sustatzea, ikasgela antolatzeko beste modu baten bitartez; eta familiaren eta komunitatearen parte hartzea, dela haien edota haien seme-alaben formazioan erabakiz, baita ikastetxeko jardueran bertan ere.

Atal honetako aurreko paragrafoetan Ikas Komunitateen funtsezko ideia bat errepikatu da: hezkuntza komunitateko kideen arteko interakzioak, harremanak, edota dialogoaren garrantzia. Izan ere, Ikas Komunitateek aipatutako gizarte arazoei aurre egin nahi diete, komunikazio eta hizkuntzaren erabileraren bitartez, eta ikastetxearen inguruko elementuak ikasketa prozesuetan sartuta (Rubio, 2005). Are, elkarrizketa hori errespetuzko testuinguruan gertatzen denez eragileen artean, eskola demokratikoago bat antolatzeko aukera sortzen da (Rodrigues de Mello, 2011).

2.2.2. Ikas Komunitateen oinarri teorikoa

Esku artean dugun proiektuaren oinarrian, aurreko puntuan arin aipatu bezala, ikaskuntza dialogikoa dago. Hots, hezkuntza komunitateko kideen arteko elkarrizketa. Flechak (1997) Ikaskuntza Dialogikoaren Teoria garatu zuen, eta, bertan, zazpi printzipio bereizi zituen; jarraian horiek guztiak garatuko dira, horien funtsaren zertzelada nagusi batzuk emanez:

a) Berdintasunezko elkarrizketa

Jurgen Habermasen ekintza komunikatiboaren teoria dago printzipio honen atzean. Garridok (2011) gogora ekarri du nola Habermasek (1987) nabarmentzen zuen aintzat hartu behar zirela gizabanakoen arteko ekintza motak pragmatika unibertsala lortzeko bidean, bai estrukturak bateratzeko zein ezagutza linguistikoa erdiesteko. Bada, pertsonen arteko lau ekintza xehatu zituen: ekintza estrategiko edo teleologikoa, edo asmo jakin bat lortzeko asmoa duen ekintza; arauak baldintzatutako ekintza, edo gizarte bateko kideek partekatzen dituzten balioekin lotutakoa; ekintza dramaturgikoa, edo gizabanakoaren subjektibotasunaren erabateko

adierazpenari lotutakoa; eta, azkenik, ekintza komunikatiboa, edota linguistikoki komunikatzeko gai diren bi pertsonen arteko elkarrekintza, pertsonen arteko harreman bat sor dezakeena.

Habermasen ustez, Garridok azaldutakoaren arabera, lehen hiru ekintzek arrazoi instrumentala dute atzean, eta ez dute ahalbidetzen berdintasunezko elkarrizketa. Adibide baten bidez irudikatzen saiatuko gara baieztapen hori. Ikastetxe batek erabaki du inauterietan ikasleak euskal mitologiarekin lotutako pertsonaiez mozorrotuko direla, curriculum dekretuan zehaztutako tokiko kulturari buruzko edukiak jorratu ahal izateko (arauek baldintzatutako ekintza). Halaber, ahalik eta gastu txikiena eta hondakin gutxien sortze aldera, familiei eskatu zaie berrerabilitako materiala erabiltzeko jantziak osatzeko (ekintza estrategikoa). Hori guztia azaltzeko bilera bat egin da, non zikloetako koordinatzaileek hori guztia azaldu duten, gogo handiarekin (ekintza dramatikoa). Ekintza komunikatiboak, aldiz, prozesu hori demokratizatuko luke hein handian, eragile guztien iritzia aintzat hartuz: asanblada bidez proposamenaren arrazoiez informatuz; familiei eta ikasleei hitza emanez erabakitzeko prozesuan, adibidez.

Prietok eta Duquek (2009) aurreko ekintzetan hezkuntzan aurkitzen diren bi harreman mota aipatu dituzte, hezkuntzan maiz agertzen direnak: botere harremanak, eta harreman dialogikoak. Bi autore horien ustez, azken hautu horrek, dialogoaren aldekoak, zentzua ematen die ikasgaiei, testuingurua ematen die edukiei, eta hezkuntza komunitatearen interesak aintzat hartzen dira ikasteko prozesuan.

b) Adimen kulturala

Aubertek, Flechak, Flechak, Garciak eta Racionerok (2008) nabarmendu dute hezkuntzan, tradizionalki, adimen mota bat hartu dela kontuan: akademikoa. Horretara mugatzea baliabide garrantzitsu bati uko egitea dela nabarmendu dute, eskoletan dagoen aniztasunari heltzerako orduan. Zentzu horretan, akademikoa ez den beste inteligentzia batean jarri dute arreta: "Komunitateko pertsonen adimen kulturala behar dugu, gure ikasleek ikasten dutena handitzeko, eta ikasgelen, ikastetxeen eta horiek komunitatearekin duten harremana hobetzeko". (Aubert, Flecha, Flecha. Garcia eta Racionero, 2008, 175 o.). Bada, adimen kultural horren barruan, akademikoa ez ezik,

adimen praktikoa eta komunikatzeko adimena kokatu dituzte aipatu bost autoreek.

Prietok eta Duquek (2009), aurretik aipatu autoreen ildotik, azaldu dute adimenak ez direla berezkoak, eta gara daitezkeela; hau da, adimena ezagutza potentziala dela. Hari horretatik tiraka, inteligentzia akademikoa neurtzerakoan horren neurketara bideratutako hizkuntza kode landuak baliatu ohi direla gaineratu dute. Hori dela eta, proba horietan lor daitezkeen emaitzak kode horren jabetzarekin lotuak daudela azaldu dute; hots, ikasle batek emaitza hobekak izango ditu kode horiek jakinez gero, kode horiek ez dakienak baino. Beraz, adimen akademikoa aintzat hartu arren, bestelakoetan ere arreta jartzearen garrantzia nabarmentzen dute.

Horrek alde batera uzten ditu bestelako inteligentzia motak, Howard Gardnerek xehatutakoak kasu (2005), edota Sternbergekin (1999) aipatutako inteligentzia praktikoa. Azken horrek aintzat hartzen ditu eguneroko bizitzan garatutako adimenak eta esperientziak. Hezkuntza arloan adibide bat jartze aldera, landa eremuko LHko ikasle batek, adimen akademikoa baxuarekin, funtsezkoa izan daiteke eskolako baratzaren proiektua garatzean, irakaslearen adimen akademikoa ez baita bertara heltzen. Prietok eta Duquek (2009) adimen praktikoa aintzat hartzearen garrantziaz ohartarazi dute, besteak beste, ikaskuntza prozesua motibatzailea gerta dadin, ikasleen egunerokotasuna eta ingurua ikaskuntza prozesuan txertatuz.

Azkenik, aurrez esan bezala, inteligentzia komunikatzailea sartu dute Aubertek, Flechak, Flechak, Garciak eta Racionerok (2008) adimen kulturalaren barruan. Noam Chomskyren Gramatika Unibertsalaren Teoria gogora ekarri dute puntu honen muina azaltzeko. Hain zuzen ere, Chomskyren arabera (1977) gizaki oro hizkuntzarekin genetikoki gaitua dago, jaiotzatik: hau da, hastapenetatik berezko ezagutza linguistiko unibertsal bat du. Gramatika Unibertsal horren barruan parametro guztiak daude, gerora hizkuntza moduan ezar daitezkeenak. Gramatika Unibertsalak eta hizkuntza zehatz bati lotutako parametro horiek gaitasun horren konpetentzia osatzen dute; alegia, konpetentzia da hizkuntza zehatz bateko erabiltzaile guztiek partekatzen duten arau sistemaren ezagutza implizitua. Ezagutza horren erabilera zehatza "ekintza" deitu zuen Chomsky (1988), Aubertek, Flechak, Flechak, Garciak eta Racionerok (2008) zehaztutakoaren arabera. Ekintza horiek askotarikoak izan daitezke, eta aldagai sozio-kulturalek eragiten dute

bertan. Hala eta guztiz ere, Chomskyk ez du mailaketarik egiten ekintza horietan, egiten dituen pertsonak egiten dituela; are gehiago, gaineratzen du ume guztiak gai direla partekatzen duten hizkuntzan egindako edozein ekintza ulertzeko. Aurreko hausnarketak aintzat hartuta, adimen horiek hartzearen garrantzia nabarmendu dute Aubertek, Flechak, Flechak, Garciak eta Racionerok (2008) umeen gaitasun guztiak garatze aldera.

c) Eraldaketa

Ikaskuntza dialogikoari, eta, ondorioz, Ikas Komunitateen proiektuari ere, asmo "eraldatzailea" aitortzen zaio, ez soilik ikastetxe barruan baizik eta gizarte mailan ere. Prietok eta Duquek (2009) bi gako zehaztu dituzte eraldaketa horren barruan: irakaslearen rola eta konpromisoa, eta hezkuntza instituzioen konpromisoa.

Batetik, irakaslearen rola eta konpromisoari dagokionez, aipatu autoreen azaldutakoaren ildotik, hezkuntza profesionalek onartu behar dute ez direla ezagutzaren igorle bakarrak informazioaren gizartean; alegia, euren esku hartzea komunitatean dauden askotariko ezagutzen bitartekaritzara bideratu beharko lukete, baita informazioa kritikoki aztertzen laguntzeko prozesuan ere.

Bestetik, hezkuntza erakundeen konpromisoa garrantzitsua da Ikas Komunitateetan, gizarte ezberdintasunak gainditzen lagunduko duen pedagogia ezartzerako orduan (Prieto eta Duque, 2009). Izan ere, instituzio horiei dagokie ikaskuntza dialogikoa garatzeko baldintza onenak ahalbidetzea.

Eraldaketa horrek hezkuntza komunitate osoan eragiten du, eskola barruan berdintasunezko elkarrizketari atea irekiz, eta adimen kulturala aintzat hartuta, Vigotskyk (1996) proposatutakoari helduz: hezkuntza aldatu nahi bada, ez dira hezkuntza helburuak testuingurura egokitu behar, baizik eta testuingurua bera aldatu behar da hezkuntzan eragiteko. Alegia, aipatu autorearen garapen gertuko eremuaren kontzeptua modu zabalean ulertu da, ikasgelako parekoen arteko harremanak gaindituz, eta garapen gertuko eremu kolektibo bat sortuz, ezagutzaren eraikuntza bateratu prozesu batean (Hernandez, 1999).

d) Dimentsio instrumentala

Ikasketaren dimentsio instrumentalean indarra jartzen duen prestakuntza akademiko bat beharrezkoa da, testuinguru sozial eta kultural apaletako ikasleen babesgabetasun arriskua saihestuko bada (Aubert, Flecha, Flecha, Garcia eta Racionero, 2008). Prietok eta Duquek (2009) ikaskuntza dialogikoak arlo honetan egindako hainbat ekarpen xehatu dituzte.

Ikuspuntu konstruktibista batetik, ikasketa instrumentala "erlatibizatzen" dela hausnartzen dute aipatu autoreek. Aurretik izandako ezagutzetan oinarritutako hezkuntzak desorekak eragin ditzake ezagutza handiagoak eta txikiagoak dituztenen artean. Alegia, maila sozioekonomiko apaletako eskoletan ulertzen da ikasleen aurretiazko ezagutzak baxuak direla, eta oinarri horretatik helburua apalagoak finkatzen dira.

Aldiz, ikuspuntu dialogikotik, eskolak kalitatezko ikaskuntza instrumentala bermatu behar die ikasle guztiei. Batetik, Freire (1997) ekartzen dute gogora aurrez aipatutako autoreek, hark argudiatzen baitzuen pertsona guztiek jakin-min epistemologiko bat dutela, baina jakin-min hori apal daitekeela helburuak jaisten badira. Horrez gain, Ladson-Billingsen teoria (1994) ere ekarri dute gogora, eta ikasgela "kulturalki nabarmenetan" helburu nagusia instruksionala izan behar duela nabarmendu dute.

Are gehiago, ikaskuntza horrek kalitatezkoa izan behar duela argudiatu dute. Ikasketa dialogikoaren ikuspuntu horrek ezeztatzen ditu Ausubel, Novak eta Hanesianen teoriak (1978). Hiru autore horien ustez baztertutako kolektiboek haien aurreko ezagutzekin lotutako edukiak eman behar zitzaizkien, curriculumak egokituz, eta oinarritzko ezagutzak eskainiz. Halaber, kolektibo horietako ikasleek ikasteko motibazio falta egozten zieten. Pedagogia kritikoren ikuspuntutik, ordea, ez da halakorik gertatzen (Cole eta Scribner, 1977). Are, horren aurrean defendatzen dute kalitatezko ikaskuntza instrumentala funtsezkoa dela baztertutako eremuetako, ikasleek bazterkeriari aurre egiteko baliabideak izan ditzaten (Aubert, Flecha, Flecha, Garcia eta Racionero, 2008).

Azkenik, ikasketa instrumental hori elkarrekintzen eta elkarriketaren bidez lortzen dela azaldu dute Prietok eta Duquek (2009). Autore horiek Vigotskyren ekarpenak ekartzen dituzte gogora, non argudiatzen zuen pertsona baten ezagutzen jatorria aurrez beste pertsona batzuekin izandako elkar

harremanetan dagoela. Horrek, berriro ere, ikaslearen garapen gertuko eremuan jartzen du arreta (Vigotsky, 1996): ikasleak bere kabuz egin dezakeen horren (garapen errearen maila) eta egitera hel daitekeenaren artean (garapen potentzialaren maila) kokatutako eremuan, hain zuzen. Kasu, honetan, baina, aurrekoan bezala, asmoa da garapen potentzialaren maila erdiestea, eta ez edukiak garapen errearen mailara egokitzea.

e) Zentzua sortzea

Hezkuntzan "zentzu krisia" dagoela hausnartu dute Duquek, Rodrigues de Mellok, eta Gabassak (2009); irakasten den horrek ez du esanahi gerturik hezkuntza prozesuko protagonistentzat. Horren atzean dagoen arrazoi nagusia eskolan irakasten denaren eta ikasleen bizitzen arteko lotura falta dago. Aurrez aipatutako krisi hori sortzen da ikasleen nahiak eta emozioak aintzat hartzen ez direnean, edota horiek modu koherente eta zientifikoan ez garatzean. Aipatu hiru autoreek adibide gisa baliatzen dute ikastetxe bat, non elkarrizketaren garrantziaz aritzen diren, baina familien ekarpenak aintzat hartzen ez dituzten.

Elkarrizketaren bitartez gertatzen den hezkuntza komunitatearen parte hartzeak, direla familiak direla ikasleak, zentzuak elkarrekin eraikitzeak aukera ematen duela nabarmendu dute Aubertek, Flechak, Flechak, Garciak eta Racionerok (2008). Zentzua ikastetxean gertatzen denarekin lotuta dagoela gaineratu dute, *nola* gertatzen denarekin, eta arlo bakoitzari ematen zaion balioarekin. Eskola-kultura kultura hegemoniko bati lotua dagoela gogorarazi dute: mendebaldeko gizartearen ikuspuntutik, eta klase ertain-altukoa. Bertatik at dauden familiek eta ikasleek distantzia sentitzen dute eskola-kultura horrekiko, ez dira identifikatuta sentitzen, eta, horrenbestez, aurrez aipatutako "zentzu krisia" agertzen da.

Ikaskuntza dialogikoak eskolako edukiak testuinguruko errealitateekin lotzen laguntzen dute, komunitateko hizkuntzak eta kulturak aintzat hartzen dituelako, eta elkarren arteko eraginaren bitartez testuingurua bera eraldatzen dela azaldu dute Duquek, Rodrigues de Mellok, eta Gabassak (2009); hots, hitzaren bitartez zentzu komunak lortzen dira.

f) Elkartasuna

Prietok eta Duquek (2009) hausnartu dute, ikuspuntu tradizionaletik, ikaskuntza instrumentalaren kalitatea lotu dela lehiakortasunaren eta

banakako lanarekin; hau da, bi muturren artean erabaki beharko balitz bezala jokatu da, kalitatezko ikaskuntza instrumentalaren artean, edo elkartasuna eta lankidetzaren artean. Ordea, ikaskuntza dialogikoaren arabera, biak elkar lotuta daude. Slavinen lana aipatzen dute Duquek eta Prietok (2009) hori argudiatzeko. Slavinek (2008) argudiatzen du ikaskuntza kooperatiboak aipatu bi arloetan eragiten duela: kalitatezko ikasketak handitzen dira, eta ikasleen arteko harremanak hobetzen dira. Are gehiago, nabarmentzen du ondorio horiek neurtu direla ikerketa zientifikoek babesten dituzten hezkuntza jarduera arrakastatsuen aplikazioetan.

g) Desberdintasunen berdintasuna

“Modu ezberdinean bizitzeko eskubide berdina esan nahi du desberdintasunen berdintasunak” (Duque, Rodrigues de Mello, eta Gabassa, 2009). Autore horiek nabarmentzen dute, aukera berdintasuna sustatzen duen helburu bat bilatzeak ez duela loturarik pertsona guztiak homogeneousatzeko asmoarekin, aurretik iradokitako eskola-kulturaren etnozentrismoarekin; alegia, nor bere kultura besarkatuta beste edozein ikaslek dituen aukera berdina izatea bilatzen da.

Idea horren irakurketa okerrekin ikaskuntza dialogikoaren muinen kontra joan daitezke (Prieto eta Duque, 2009), eta are ezberdintasun handiagoak sortu ikasgelan. Ezberdintasun kulturaletan arreta jartzen duen aniztasunaren trataera aipatu dute, non ikasketa homogeneousoa lortzeko ingurua moldatu beharrean, ikasketa aniztasunera egokitzen den; aniztasunak, kasu horretan, ezberdintasunak errepikatzen jotzen du. Are, ikaskuntza dialogikoak defendatzen du aniztasun handiagoak elkar harreman gehiago ahalbidetu ditzakeela, eta, ondorioz, ikaskuntza gehiago erraztu (Aubert, Flecha, Flecha, Garcia eta Racionero, 2008).

2.2.3. Hezkuntza jarduera arrakastatsua Ikas Komunitateetan

Ikaskuntza dialogikoaren printzipioekin bat datozen hezkuntza jarduerak baliatzen dituzte Ikas Komunitateek, eta horiek guztiak eraginkorrak direla egiaztatu da ikerketa zientifikoaren bitartez (Flecha eta Molina, 2015). Jarduera horiek bi multzo nagusitan bereizi dituzte bi autore horiek: ikasleen askotariko taldekatzeak, horien ikasketa sustatze aldera, bai ikasgelan zein ikasgelatik kanpo; eta familien parte hartzearekin eta komunitatearekin lotutakoak. Jarraian zerrendatuko ditugu jarduera horiek, eta horien

aldagaiak (Dominguez, 2017). Nagusiki familien parte hartzearekin lotutakoak interesatzen bazaizkigu ere, bi multzoetan agertzen diren eta elkar elikatzen dutenak azalduko ditugu. Irakasle taldeari dagozkionak baino ez ditugu alde batera utziko, horien garrantzia ahazterik ez badago ere.

Modu laburrean egingo dugu jarduera bakoitzaren azalpena, marko teorikoarekin dituzten loturetan sakondu gabe, harremana agerikoa delako.

a) Familien eta komunitatearen parte hartzea:

Atal honen barruan dauden askotariko esku hartzeak aurrez azalduko teorien emaitza da, bai familien parte hartzeari dagokion atalekoak, baita ikaskuntza dialogikoaren printzipioenak ere. Izan ere, jarduera hauek bilatzen dutena da, familien inplikazioak duen emaitza positiboa ez ezik, askotariko elkar harremanak sustatzea ikasketa aberasteko, arreta berezia jarri gabe parte hartzaileen hizkuntza ikasketa edo maila sozioekonomiko eta kulturalean. Jarduera horiek bi multzo nagusitan barnebiltzen dira:

- *Ikasketa jardueretan*: Horiek bi ildotan joan daitezke: familien seme-alaben ikasketetan, edota guraso zein komunitateko beste helduen ikasketan. Hau da, lehen parte hartzean helduek zuzenean esku hartzen dute haien seme-alaben ikasketan, eskola barruko dinamika eta jardueretan parte hartuz. Jarduera horien nondik norakoak hurrengo atalean agertuko dira; edonola ere, aurrerapen gisa, horien artean talde elkarreragileak, edota liburutegi tutorizatuak daude, besteak beste.

Senide eta komunitateko kide helduen prestakuntzari dagokionez, ikas komunitateetan prestaketa profesionala ez da irakasletara mugatzen, hezkuntza komunitateko beste eragileak ere aintzat hartzen dituelako. Prestaketa hori askotariko moduan ager daiteke, baina, oinarri gisa, gurasoen interes eta beharrei erantzuten die. Gurasoen parte hartze horrek ikasleen (prestakuntza jardueretan parte hartzen duten gurasoen seme-alaben) emaitzetan eragin positiboa dute. Azkenik, senide zein borondatezko lana egiten duten komunitateko beste kideei ere prestakuntza ematen zaie, ikasleen ikasketa prozesuan lagun dezaten: hitzaldien edota mintegien bidez.

Familiei bideratutako prestakuntza ekintza horiek, esan bezala, askotarikoak izan daitezke: eztabaida dialogikoak, partekatzen duten kezka baten inguruan; alfabetizazio ikastaroak; umeen idazketa eta irakurketa sustatzeko

programak; haien nahi eta grinekin lotutako beste edozein ikastaro (atxikimendu seguruari buruz, sukaldaritza, informatika...).

- *Ebaluazioan eta erabakiak hartzean:* Flechak eta Molinak (2015) hausnartu dute parte hartze hori ahalbidetzeko sortu behar direla eskola antolaketa berriak, komunitateko, eta, batez ere, familien ahotsak hartu ahal izateko. Horren helburua hezkuntza eragile guztien parte hartzea lortzea litzateke: irakasleekin lankidetzan aritzeko, gatazken kudeaketarako, edota ikasketarekin lotutako erabakiak hartzeko, adibidez.

Antolaketa modu horien artean, honakoak xehatu dituzte aipatu autoreek: batzorde mistoak, komunitateko sektore guztietako partaideekin (irakasleak, gurasoak, ikasleak...); familien asanbladak, ikastetxeari dagozkion gaien gainean erabakiak hartu ahal izateko, ikasleekin batera... Aurrez aipatu bi autoreen iritziz, horrek errazten du guztien ezagutzak eta iritziak plazaratzea, eta, horrenbestez, errazten du konponbide egokienak topatzea.

b) Ikasleen taldekatzeak:

Aurrez esan bezala, taldekatze hauek ikasleen arteko harreman dialogikoak erraztea dute helburu. Modu askoan antolatu dira, baina honakoak dira multzo nagusiak (Flecha eta Molina, 2015):

- *Talde elkarreragileak:* Ikasgela talde txiki eta heterogeneoetan antolatzen dira (4-5 kide), eta talde beste txoko zehazten dira. Txoko bakoitzean heldu bat egongo da (irakaslea, senidea, komunitateko kidea...), ikasleen arteko elkarreragina sustatzeko nagusiki; hots, ez du irakasle tradizionalaren lanik egingo, baizik eta ikasketa dialogikoa errazteko esku hartzen du. Txoko bakoitzeko jarduera irakasle tutoreak zehazten du, eta eduki instrumentalak izan ohi dira; ikasle talde heterogeneo bakoitza txoko batean hasten da, eta bertan 15-20 minutu inguru egon ondoren, hurrengora pasatzen da, talde guztiak txoko guztietatik pasatzen diren arte. Lan egiteko estrategia horrek harremanak sustatzen ditu, eta, era berean, lan egiteko eraginkortasuna ere handitzen da (Jaussi eta Sancho, 2015).

- *Ikasteko denbora luzatzea:* Eskolaz kanpoko ordutegitik kanpo ikasten jarraitzeko aukera ematen dute multzo honen barruan dauden ekintzek. Zailtasun gehien dituzten ikasleentzat garrantzitsuak dira (Flecha eta Molina, 2015), aukera ematen dielako laguntza berezitua jasotzeko, baina eskola orduan duen erreferentziazko taldetik urrundu gabe. Eskola orduetatik

at eskaintzen diren espazio horiek, ikasketa instrumentaletan aurrera egiteko laguntzaz gain, aniztasunaren kudeaketarako eta inklusiorako baliabideak ere badira (Dominguez, 2017). Multzo honen barruan gehien ematen dena Ikas Komunitateetan liburutegi tutorizatuak dira: eskolako liburutegiaren barruan dagoen espazio bat da, ikastordu ofizialak amaitzean irekitzen dena (eguerdi, arratsalde edota asteburu), nahi dutenek dohainik ikasteko espazio bat izan dezaten. Espazio horretan, adin eta maila ezberdinetako ikasleez gain, irakasle eta komunitateko kideak daude, gurasoak barne.

- *Irakurketa dialogikoak*: Irakurtzeko ekintzak ahal beste zabaltzean datza jarduera hau, espazio, testuinguru, une edota pertsonetara, betiere ikuspuntu dialogikotik. Hau da, irakurketaren inguruan elkarrekintzak handitzen dira horren bitartez. Ikasleek, irakurtzea ez ezik, hausnartzen dute irakurri dutenaren inguruan: zer ulertu duten, zer ez duten ulertu, eta sorrarazi dizkien ideiak argudiatzen dituzte (Flecha eta Molina, 2015).

Irakurketa dialogikoa sustatzeko lau jarduera nagusi aipatu ditu Includ-ED ikerketak (Flecha eta Molina, 2015). Lehena, ikasteko denbora luzatzea da, aurrez aipatu dugun ekintza, hain zuzen ere. Bigarrena familia irakurleak dira: Lehen Hezkuntzako hasierako urteetako ikasleek espazio eta denbora partekatzen dute haien gurasoekin, irakurketaren inguruan. Hirugarren ekintza irakurketa aitabitxiak dira: LHko lehen urteetako ikasleak LHko azken urteetako edota DBHko ikasleekin elkartzen dira, nagusia gazteenaren irakurketa aitabitxia bihurtuz, eta elkarrekin irakur dezaten uneak bilatuz. Azkenik, eztabaida literario dialogikoak daude. Horretan literaturako klasikoak hartzen dira, eta txandaka irakurtzen dira: aste batetik bestera orri kopuru zehatz bat. Gerora, irakurritakoaren gainean hitz egiten dute ikasleek, modu berdinzalean, haien hausnarketak plazaratu, eta horien gainean eztabaidatzen dute, irakurgai berdinen inguruan ezagutza komuna eraikiz.

Irakurketa dialogikoaren ildotik bestelako jarduerak daude, ikaskuntza dialogikoan zentratuta, baina irakurketa ez diren bestelako ikasketetan zentratuta (Dominguez, 2017): eztabaida musikalak, artistikoak, matematikoak, zientifikoak...

2.3 Aranbizkarra Ikas Komunitatearen egoera

Aranbizkarra Ikas Komunitatea Gasteizko izen bereko auzoan kokatuta dago: Aranbizkarran. 2008an erabaki zuen Ikas Komunitate bihurtzea. Orduan hasi zituzten egitasmo horretan bihurtzeko pauso guztiak, eta gaur egunera arte eutsi diote. Ikas komunitate bihurtzearen arrazoia ikastetxearen inguruko errealitateari erantzutea izan zen. Segregatutako ikastetxea zen, eta bertako familien batez besteko ISEKa baxua zen. Yolanda Fernandez ikastetxeko irakasle ohiak gogorarazi du Ikas Komunitate bihurtzearen arrazoia ume horien arrakasta bermatzea zela.

Gaur egun 370 ikasle inguru ditu, 2 urteko gelatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte, bi lerrotan banatuta. ISEK maila garai batean bezala mantentzen da: baxua. Hamar ikasletik ia zortzik jasotzen dute diru laguntzaren bat (jantokia, materiala...), eta mugikortasun handia dago: iazko ikasturtean 25 ikaslek utzi zuten ikastetxea, eta 36 berri heldu ziren.

Aranbizkarra Ikas Komunitatean seme-alabak dituzten familiak 200 inguru dira, eta horietako asko ez dira auzokoak: lehen aukera ez zuten arren bertara heldu dira, eta, behin ikastetxea ezagututa, mantentzen dira. Familia horien parte hartzea askotarikoa da. Familia askok parte hartze "kasuala" dutela azaldu du Irantzu Gallastegi ikastetxeko zuzendariak: eskolako jaietan, Aranbizkantuz ekinbidean (hilean behin jolastokian egiten den kantu saioa)... Ordea, Ikas Komunitatean parte hartze handiagoa duten familiak ez dira asko; hori bai, horien parte hartze maila "oso handia" dela nabarmendu du: gurasoen formazioan, talde elkarreragiletan, edota batzorde mistoetan.

Ikastetxean irakasteko baliatutako hizkuntza euskara da, eta familiekin harremana izatekoa gaztelania, nagusiki, baina betiere egoeretara egokituta. Ikas Komunitate izatera pasa ziren garaian bezala, Aranbizkarra segregatutako ikastetxea da. 25 herrialde baino gehiagotatik heldutako familiak daude ikastetxean, eta hamar ikasletik lau inguru atzerrian jaio badira ere, atzerrian jaiotako gurasoak hamarretik zazpi dira.

Administrazioaren telefono bidezko itzulpen zerbitzua erabiltzen dute gaztelera ezagutzen ez duten familiekin komunikatzeko, edota gaztelania ezagutzeaz gain ikastetxeko beste hizkuntzaren bat ezagutzen duten familiek ere lagundu izan dute komunikazioan. Familiei zuzendutako dokumentu handiak gazteleraz egin ohi dira, eta, batzuetan, ingelesera egokitzen dituzte.

Familia horiek proiektuaren berri jasotzen dute ikasturte hasieran, eta maiz gogorarazten zaie Ikas Komunitatearen jardueretan parte hartzeko dituzten aukerak eta moduak. Lan hori zuzendaritzako kideek bere gain hartzen zuten arren, gaur egun "lidergo konpartitu" bidez egiten da. Hau da, zuzendaritzako kideak ez ezik, jarraipena duten hezkuntza profesionalek ardurak ere hartzen dituzte: zikloetako koordinatzaileak, tutoreak, PTak... Hala ere, lan ildo komuna zehazteko ardura zuzendaritzari dagokiola argi dute.

Aranbizkarreko Ikasleen Guraso Elkarteak, Zuriber izenekoa, sustatzen ditu gurasoei zuzendutako ekintza gehienak. Elkarte horrek 63 familia hartzen zituen iazko ikasturtera arte, eta 20 euroko kuota ordaintzen zuten ikasturtero bertako kide izateagatik. Kide zirenek ez zuten ordaindu behar familientzat antolatzen zituzten jarduera batzuen truke (Bilboko Neguko Jolas Parkera joatea, adibidez), eta kide ez direnek zerbait ordaindu behar zuten. Ordea, ikasturte honetan aldatu dute. Aranbizkarra Ikas Komunitatean seme-alabak dituzten guraso guztiak Zuriber IGEko kideak dira, eta ekintzetan parte hartzen badute zerbait ordaindu behar dute.

Aranbizkarra Ikas Komunitatean hainbat Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuak garatzen dituzte. Talde elkar eragileak horien artean indartsuetako bat dela hausnartzen dute bertan parte hartzen duten irakasleek; Lehen Hezkuntzan asteen gutxienez 100 minutuko bost saio egiten dituzte talde elkarreragileetan, baina, zikloaren arabera, baten bat gehiago ere egon daitezke. Talde elkar eragile horretan parte hartzen duten bitartekari helduak, ikastetxeko irakasleak dira. Ildo horretan gehiago sakontzea ez dagoela baloratu dute, dauden giza baliabideekin ezin delako gehiago egin. Gurasoekin egiten diren talde elkarreragileak maila bakoitzeko familien parte hartze mailaren arabera da: LHko lehen zikloan, adibidez, tertulia literario dialogikoak talde elkarreragile moduan planteatzen dira, gurasoen parte hartzearekin. Gasteizko EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleek ere parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako talde horietan, eta Haur Hezkuntzan Francisco de Vitoriako ikastetxeko Lanbide Heziketako Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloko ikasleak. Azken datu horiek pandemiaren aurrekoak dira.


Erabaki organoetan komunitateko kideen parte hartzea sustatzen da. Gurasoek parte hartzen dute OOGan³. Egon behar zuten guztiak daude, eta

³ Ordezkaritza Organo Gorena

horien artetik hamar gurasoko talde egonkor bat sortu da, maiztasunez parte hartzen duena. Batzorde mistoetan ere guraso batzuen parte hartzea gertatu da, baina ez modu jarraian eta sistematizatuan; IGEaren eta zuzendaritzaren arteko harreman estua dago gai guztietan, eta horrek batzorde mistoen bide paralelotzat hartzen da kasu batzuetan. Horren aurrean, parte hartze falta horri aurre egiteko, azken horretan ahalegin berezia egin da, formazio jardueretan parte hartzen duten kideak ikastetxeko zenbait ekintza aukeratzeko prozesura gehituta: Kultura Asterako gaia aukeratzeko iritzia eman ahal izatea, edota ikastetxeko jaietarako proposamenak egitea, kasu.

Gai batzuen inguruan familien interes berezia antzeman dute, zuzendaritzatik: emaitza akademikoak eta eskola egutegiko jaiak. Azken gai horretan, adibidez, erlijio ebanjelikalista duten familia batzuk ez dute Agate Deunan parte hartzen, santuei abestea idolatria delako. Ordea, horietan ez dira sakontzen hasi, modu orokortuan.

Familien formazioari eta eskolako ordutegia handitzeko jardueri dagokienez eskaintza zabala dute, askotariko eragileek eskainita. Horiek guztiak 2. Taulan laburbilduko ditugu, eta jarraian apur bat gehiago garatuko ditugu.



2. Taula. Aranbizkarra I.K. eskolaz kanpoko jarduerak (Iturria: A.I.K.)

Hiru eragile nagusik parte hartzen dute eskolaz kanpoko eskaintza horretan: Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak eta Zuriber IGEak. Lehenaren bitartez, Paulo Freire Helduen Irakaskuntzarako Ikastetxeak euskara, espainola eta informatika eskolak eskaintzen ditu. Iazko ikasturtean hasi ziren horrekin;

eskola horiek ez dute balio agiri ofizialik lortzeko, baina familia askok eskertzen dute hizkuntza ofizialak ikasteko aukera, baita gaitasun digitala garatzeko aukera ere. Eusko Jaurlaritzak ikasleei zuzendutako bestelako eskaintza ere egiten du: Bidelaguna.

Gasteizko Udalak eta Zuriber Elkarteak gurasoen formaziorako programa bat eskaintzen dute (Zuriberrek sustatua, eta Gasteizko Udalak finantzatua): Familien Parte Hartzea sustatzeko Formazio Proiektua. Bertan euskara eta espainola ikasteko klaseak ematen dituzte. Eskaintza hori Paulo Freirerena baino bost urte lehenago ematen hasi zen, eta, gaur egun, azken horretatik at geratzen diren familiei eskainita dago nagusiki, baita alfabetatu gabe daudenei ere. Zuriberrek eta Udalak, Iparralde Gizarte Etxeko Kaleko Hezitzaileen bitartez, bestelako jarduerak ere proposatu dituzte ikasturte honetan: Urban Dance, eta baratzezaintza. Azken horretan Aranbizkarreko Edadetuen Zentroak ere parte hartu du.

Horrez gain, Gasteizko Udaleko Haurtzaro eta Familia sailetik ikastaroak eskaintzei dizkie familiei atxikimendu seguruaren inguruan. Laguntza psikopedagogikoa ere eskaintzen du, baita Familian Ikasteko Txokoa ere. Azken hori eskola denbora zabaltzearen barruko ekintzetan koka daiteke: eskolako ordutegia amaitzean txoko bat eskaintzen da, hezitzaile batekin, familiak haien seme-alabekin joan daitezten. Ikasturte honetara arte ikastetxean egiten zen, baina aurten Iparralde gizarte etxera mugitu dute.

Azkenik, Zuriber IGEa eskolaz kanpoko ekintzez arduratzen da, baita Bidelaguna programa Lehen Hezkuntzako maila guztietara zabaltzeaz ere, eskolaz kanpoko jardueren barruan.

3 HELBURUAK

Lan honen bitartez Aranbizkarra Ikas Komunitateko errealitate bati erantzutea bilatzen da: familien parte hartzea handitzeko moduak aztertzea. Aurrez azaldu bezala, ildo horretan lan handia egiten badute ere, zuzendaritzako kideek beste formula batzuk abiaraztearen gainean hausnartzen dute, etengabe. Formula berriak aurkitzeko asmoarekin Arabako, Hego Euskal Herriko, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako beste Ikas Komunitateetara joko dugu, horietan familien parte hartzea sustatzeko dituzten lan ildoen berri izateko, baita horiek garatzerakoan dituzten

zailtasun eta praktika onak jasotzeko ere. Horrez gain, lan horren gaineko hausnarketa ere eskatuko diegu, haien eskarmentua baliatuta ahulguneak eta indar-guneak hobeto zehazteko.

Informazio hori esku artean, beste ikastetxeetan egiten diren jardueretatik Aranbizkarrera eraman daitezkeenak aztertuko ditugu, betiere ikastetxe bakoitzaren testuingurua kontuan hartuta, familien parte hartzea sustatzeko helburuarekin. Hartara, horietan oinarrituta, gaur egun martxan dauden egitasmoak osatzeko eta indartzeko moduak proposatzea izango dugu, parte hartze maila guztietan.

4 METODOA

Ikerketaren helburuak direla eta, metodologia kualitatiboaren alde egin dugu. Lan egiteko modu horrek aukera emango digu aztergaira "barrutik" gerturatzeko: hau da, egoera erreala bertatik bertara ezagutzen duten eragileen bitartez, direla zuzendaritza taldekoak, irakasleak edota gurasoak (Bisquerra, 2004). Metodologia kuantitatiboak ez liguke horretarako aukera emango. Metodologia kualitatiboetara gerturatzeko hamaika aukera daude, baina ikerketa honen asmoen bide beretik doan definizio bat eman du Sandinek (in Bisquerra, 2004): "Ikerketa kualitatiboa aktibitate sistematikoko bat da, eta hainbat helburu ditu: hezkuntzarekin edo gizartearekin lotutako gertakariak sakon ulertzea; jarduera eta testuinguru sozio-hezitzaileak eraldatzea; erabakiak hartzea; edota ezagutza gorputz antolatu bat deskubritzea eta garatzea".

Bisquerraren iritziz hezkuntzaren alorrean ikerketa egiteko metodologia kualitatiboa baliatzeak honako adierazle komunak ditu. Lehenik eta behin, testuinguru erreala eta zehatzean kokatuta daude. Ikerlariak dira ikerketaren neurgailu nagusiak, bertan parte hartzen duten heinean haien irizpideen arabera filtratzen baitute jasotzen duten errealitatea, zentzua emanaz eta interpretatuz. Esan bezala interpretazioan oinarritzen dira: ikertutako egoerari zentzua emateaz gain, horren analisia eta informazio bilketa oso lotuta daude. Elkarrizketaren bitartez eginda dauden heinean, hizkuntzak duen garrantzia agerikoa da: arretaren fokua non jarri zehazten du, eta horren gainean konnotazioak jar ditzake, adibidez.

Hamaika moduan gara daiteke metodologia kualitatiboa, baina ikerlan honetan elkarrizketen alde egingo dugu. Juaristik (2003) elkarrizketak honela definitu ditu: informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionalak dira. Autore berak hainbat elkarrizketa mota bereizten ditu. Horien artean elkarrizketa fokatua aukeratu dugu: gai baten gaineko elkarrizketa, hain zuzen ere. Halaber, galdera zuzenduak eta ez zuzenduak izango ditu; hartara, gure ikerketarako funtsezko datuak jasotzeaz gain, zuzendaritzako kide, irakasle zein gurasoek nahi dituzten ekarpen gehigarriak egiteko aukera izango dute, ikerlanerako aberasgarriak izan daitezkeenak.

Galdetegia egiterakoan saiatu gara ahalik eta eremu zabalena hartzen, Ikas Komunitateetan ohikoak diren lan ildo nagusiak jasoaz, eta ikastetxearen zein familien ezaugarrien berri izan ahal izateko. Izan ere, ikusi nahi genuen nolabaiteko eragina ote zuten zenbait aldagaik gurasoen parte hartzean: familien maila sozio-ekonomiko eta kulturalak (ISEK), eta familien ama hizkuntzak, nagusiki.

Elkarrizketa nori egin behar ote genion aukeratzerakoan, ahalik eta lagin zabalena hartzen saiatu ginen, baina funtsezko baldintza batzuk betetzen zituztenak: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituzten ikastetxeak izan dira guztiak, Sansomendi IPI izan ezik; azken horrek DBHn jarraipena du. Horrez gain, eremu geografiko gertuko, ertaineko, eta urruneko ikastetxeak ere bilatu ditugu (Araba, EAE, Espainia, Galizia eta Katalunia). Eremua zabaltzeak aukera eman digu hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten herrialdeen esperientziak eta jokabideak ezagutzeko, Aranbizkarreko testuinguru elebidunean aplikagarriak izan daitezkeelakoan. Ikastetxe gehien-gehienak publikoak dira, itunpekoren batera jo bagenuen ere. Maila sozioekonomiko eta kultural bertsuko ikastetxeetara jotzen saiatu gara, baina bestelako errealitateak ezagutzeari uko egin gabe. Ikastetxe horiek Ikas Komunitateen web orrietan bilatu genituen, eta haien web orrialdeetan berretsi proiektua garatzen ari zirela.

Behin ikastetxeak aukeratuta, haiekin harremanetan jarri, eta galdetegia erantzuteko pertsona egokienagatik galdetu genuen: zela zuzendaritzako kidea, irakaslea, guraso, edota komunitateko kide. Halaber, galdetegia erantzuteko aukera ezberdinak eskaini genizkien: gertuko ikastetxeetan, aurrez aurre; eta urrunago zeudenetan telefonoz, edota bideo-deien bitartez.

Muturreko kasuetan, eta beste aukerarik ez balego, idatzizko erantzunak jasotzeko aukera eman dugu. Parte hartzea bermatzeko hilabetetan luzatu da elkarrizketa lotzeko prozesua: korreoz asmoaren berri eman, telefonoz asmoa berretsi, datak zehazten hasi, hitzordua lotu, eta egin.

5 EMAITZAK

Esan bezala, hamalau ikastetxerekin jarri ginen harremanetan, eta horietatik hamarren erantzunak jaso ditugu. Tamalez, ikastetxe horietatik zazpik idatziz erantzun dute; guztiek arrazoi bera eman dute, horren alde egiteko: batetik, ikasturteko erritmoarekin zaila zuten hitz egiteko tartea ateratzea; bestetik, erantzunak eragile guztien artean adosteko aukera ematen zien. Erantzun ez duten ikastetxeetatik bik Ikas Komunitate izateari utzi diote berriki, proiektua garatzen zuten kideak erretiratu ondoren; hori dela eta, ez ziren gai ikusten galdetegia erantzuteko. Beste batek asmo ona erakutsi arren ez du galdetegia erantzun, eta azkenarekin ezinezkoa izan da bideo deia lotzea; zuzendaritzako kideak eta gurasoak egotea zen asmoa, eta horrek zaildu du hitzordua zehaztea.

Erantzun duten ikastetxeek, **batez beste, hamabost urte inguru eman dituzte Ikas Komunitate bezala**. Gutxien eman duenak lau urte eman zituen; duela bi urte utzi zioten proiektuan parte hartzeari, baina hala eta guztiz ere parte hartu nahi izan dute galdetegia idatziz betetzen. Ikas Komunitate bezala denbora gehien eman duena 26 urtez garatuz joan da proiektua. Gehienak, baina, hamar eta hemezortzi urte bitartean eman dituzte egitasmo horretan.

Familiei bideratutako ekintzetan parte hartzen dutenen pertsona kopurua askotarikoa da. Gutxien parte hartzen duten ikastetxean ez dira %8ra heltzen, eta, kontrako kasuan, hiru familietatik bik parte hartzen dute. Kasu horretan, gainera, emaitzek dispertsio handia dute; hots, **emaitzetan sakabanaketa handia dago; muturretan pilatzen dira: edo parte hartze txikia dago, edo parte hartze handia dago**, erdibideko egoera duten ikastetxerik gabe.

Ikastetxeek **familiekin komunikatzeko hizkuntzari dagokionez, eleaniztasunera** jotzen da, familien errealitateak aintzat hartuta. Ikastetxe gehienetan atzerrian jaiotako guraso kopuru adierazgarria dago, eta gehienak ISEK baxukoak dira; gogorarazi behar da, hein handian, egoera horretan dauden ikastetxeetan pentsatuta sortu zela Ikas Komunitateen proiektua. Era

berean, aurrez esandakoarekin lotuta, familia batzuen ama hizkuntza ez da dauden erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat. Ikastetxe batzuetan 32 herrialde ezberdinetako kideak ere badaude; beste askotan ere kultura aniztasun handia dagoela iradoki dute, datu zehatza eman ez arren.

Ofizialki elebidunak diren eskualdeetan, **oro har, gaztelera da familiekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntza**. Izan ere, kasu gehienetan, bi hizkuntza ofizial dauden kasuetan gaztelaniaren ezagutza handiagoa dute gurasoek, bestearena baino: euskara, edo katalana. Are, galdetegia erantzun dutenen heren batean familia askok zailtasunak dituzte informazio batzuk gaztelaniaz ere ulertzeko. Kasu horietan, esan bezala, eleaniztasunera jotzen da, familien ama hizkuntzak (edo gehiago ezagutzen duten horietara) joaz: arabiera, ingelesa edo frantsesa, nagusiki. Kasu horietan beste familien laguntza eskatzen da, edota administrazioak jartzen duen itzulpen zerbitzuetara. Castroverde ikastetxea da salbuespena, bertan familia guztiak gaituak daudelako ikastetxeko hizkuntza behikularra erabiltzeko: galiziera.

Familiei idatziz bidaltzen zaien informazioari dagokionez, betiere testuinguru elebidunetan, ikastetxe askok ez dute eskola barruko hizkuntza behikularra baliatzen, ezta presentzia izan dezan ere; hori egiteak lan karga handitzea litzatekeela hausnartu dute batzuk. Hizkuntza ofizial bakarra duten eremuetan, aldiz, idatziz ere eleaniztasunera jotzen da kasu apur batzuetan: arabiera edota ingelesa baliatzen da, kasu horietan.

Familiei **Ikas Komunitateen proiektuaren berri modu sistematikoan** ematen zaie, oro har. Ikasturte hasierako asanbladetan gertatzen da hori, edota, ikasturtea hasita dagoenean heltzen diren familien kasuan, matrikulazioa egiten dutenean. Webgunean informazioa jasota dagoela aipatu izan dute ikastetxe batzuk, Ikasturteko Planaren eta Hezkuntza Planaren bitartez. Ikastetxe batzuetan izaera hori berresteko joera dute, dela familiekin harremana duen tutorearen bitartez, edota bestelako modutan.

Ikastetxe ia guztietan Ikasleen Guraso Elkarteak dago, baina hori ulertzeko hamaika modu daude. Kasu batean Zuzendaritza taldearen ekimenez sortu bazen ere, bertan behera geratu zen hasi eta gutxira, IGE barruko liskarren ondorioz. Beste batean, formalki osatua badago ere, apenas hartzen du parte ikastetxean. Beste bost kasutan familia gutxik hartzen dute parte IGEan, %6 eta %13 artean; kasu horietan, gehienetan, jarduerak prestatzen dituzte,

eskolaz kanpokoak kasu, eta zuzendaritzarekin harremana dute. Kasu batean, baina, IGEak zuzendaritzarekin harreman estua du ikastetxeko egunerokoan.

Azken lau ikastetxeetan gurasoen gehiengoak dago guraso elkarteetan sartuta (bi kasutan ia ehuneko ehuna), eta zuzendaritzarekin elkarlanean aritzen da ikastetxetik kanpoko jarduerak dinamizatzen eta antolatzen. Kasu batean zehaztu dute IGEak ez dela galbahe bat familien parte hartzea erregulatzeko; hots, eskola barruan egiten diren ekintzetan parte hartzen duten gurasoek ez dute IGEaren bitartez egiten. Ordea, gainontzeko hiruretan bezala, eragile aktiboa da eta elkarlanean ari da Zuzendaritzarekin. Monzongo (Hueska) Joaquin Costan inguruko eragileekin ere ari dira Zuzendaritzako kideak.

Bestetik, IGEko kideen jatorriari buruzko galdera zehatzik egon ez arren, Belaskoeneako zuzendariak jakinarazi du mugarri bat gertatu zela ikasleen gurasoen elkarteetan jatorri magrebtarra zuen emakume bat presidente izan zen garaian. "Patioko lana" egiteaz arduratzen zela nabarmendu du, gurasoak ikastetxeko jardueretan parte har zezaten; espresuki nabarmendu du emakume horrek eragin handia izan zuela Maroko, Aljeria eta Saharako familien artean, horien parte hartzea handituz. Horren harira, aipatu zuzendariak ondorioztatu du **eskolan dagoen aniztasuna IGEra eraman behar** dela, familien taldekatzeak bertara heltzen den irudia saihesteko, eta familia guztietara heldu ahal izateko.

Bestetik, dela IGEan parte hartzeagatik edota bestelako jarduera batzuetan izena emateagatik kuotarik ordaintzen denaren inguruan, **gehien-gehienetan diru bat eskatzen da, bai IGEko kide izateko bai eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko**. Familiei bideratutako ikastaro eta ekintzetarako ez da dirurik eskatzen, horretarako finantzazioa beste lekuetatik bilatzen baita, IGEaren kutxatik barne. Edonola ere, eskatzen den dirua IGEko kide izateagatik txikia da: bost eta hamabost euro bitartean ikasturteko, kasu batzuetan ikasle den seme-alaba bakoitzagatik, edo orotara.

Ikas Komunitatearekin lotutako jarduerak familiekin kudeatzen duena, lotura lana egiten duena, **gehienetan, ikastetxeko hezkuntza profesionalak dira**. Maiz Zuzendaritzako kideak dira: zuzendaria edo ikasketa burua; kasuren batean tutoreak ere sartzten dira koordinazio lan horretan. Edonola ere, badaude beste bide batzuk, tokiko beharren arabera. Sansomendin, adibidez, auzoko ijito elkartearekin harremana dute ildo horretan lan egiteko,

baita Gasteizko Udaleko auzoko kale hezitzaileekin ere, eta administrazio publikoetako Gizarte Zerbitzuetako kideekin; hots, komunitate horietan eskolako eremua gainditzen duen antolaketa eredu bat baliatzen dute.

Belaskoenean bi norabidetan egiten dute lan. Batetik, irakasle batek hartzen du ikastetxearen eta familien arteko lotura lana egiteko ardura: komunitateko koordinatzailea. Bestetik, **guraso ordezkariaren figura dago ikasgela bakoitzean**; horren ardura da gainontzeko gurasoekin harremana mantentzea, ikasgelako jardueren inguruan. Ordea, horren eraginkortasuna pertsonaren arabera dela azaldu du ikastetxeko zuzendariak. Gauza bera egiten dute Monzongo Joaquin Costa ikastetxean.

Azkenik, Zaragozako Santo Domingo ikastetxean, Sansomendin gertatzen denaren ildotik, **Udalak jarritako figura bat dago koordinazio lan horretan** laguntzen; zailtasun bereziko ikastetxea izateagatik du aitortua laguntza hori, eta, ikastetxeak dituen beharrak kontuan hartuta, familiekin lotura harreman hori egitea erabaki dute.

Ikas Komunitateetan garatzen dituzten hezkuntza jarduera arrakastatsuen gainean, hasteko, familien erabaki ahalmen eta ebaluazioarekin lotutakoak bi multzotan bana ditzakegu. Batetik, ikastetxe **guztietan Ordezkaritza Organo Gorenean familien parte hartzea bermatzen saiatzen dira**. Ia gehienetan plaza beste ordezkari dituzte, eta kasuen erdian bozketa bidez aukeratzen dituzte ordezkari horiek. Gainerako kasuetan prest dagoen gurasoa sartzen da, zuzenean, dauden hautagaiak plaza baino gutxiago baitira. Azken kasu horietan, nagusiki, familia guztien parte hartzerako zailtasunak antzeman dituzte: familien eguneroko beharrak eta askotariko egoera pertsonalak, edota hizkuntzekin dauden trabak gai burokratikoak ulertzeko.

Batzorde mistoak ere ohikoak dira ikastetxe gehienetan: ikastetxeko hezkuntzako profesionalak eta familiak dituzten batzordeak, hain zuzen ere. Zenbait kasutan batzorde batzuk egonkorak dira; kasu horretan Elkarbizitza Batzordea aipatu da behin baino gehiagotan. Bestela, beharren arabera sortzen dira batzorde horiek, edota hezkuntzako profesionalek baino osatzen ez dituzten batzorde horietara familiak gehitzen dira, adibidez, eskolako jai edo ospakizun zehatz batzuk antolatu behar direnean.

Beste parte hartzeko eremu batzuk, **asanbladak** kasu, **ez daude maila berean sustraituak**. Ikastetxeen erdian ez da halakorik egiten, inoiz ez (ikasturte

hasierakoak salbu). Beste batzuetan ohikoak dira, eta sistematizatuta daude, Joaquim Ruyra edota Montserrateko Mare de Deu eskolan kasu. Horietan asanbladak baliatzen dituzte jakiteko familiek zer formazio nahi duten egin, edota haien bestelako kezkak jasotzeko.

Beste hezkuntza jarduera arrakastatsuen artean **Talde Elkarreragileak dira sustraituen daudenak**. Ikastetxe guztietan egiten dituzte. Horiek ulertzeko askotariko moduak dauden, baina. Batzuk Haur Hezkuntzatik hasten dira, beste batzuk, aldiz, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arte... Are, taldeetan familiek duten parte hartzea ulertzeko modu asko daude. Mutur batean Joaquim Ruyram dago, familiek horietan parte hartzen dutelako, hizkuntza behikularra menperatzen ez duten arren, edota bi hizkuntza ofizialetako bakar bat ere. Are gehiago, horien parte hartzerako traba nagusia irakasleen artean dagoela aipatu dute, parte hartzaileen perfila aukeratu nahi dutelako. Horrez gain, malgutasunaren beharra nabarmendu dute ikastetxe horretan; familia batek parte hartu behar bazuen, baina azken unean ez badoa, ez da ezer gertatzen. Familien eta bestelako borondatezko parte hartzaileen bitartez eskola orduen %40 eta %60 bitartean talde elkarreragileen bitartez egiten dituzte, eta talde elkarreragileetara bideratutako denbora tarte zabal horrek errazten du familiei ondo datorkien ordua aurkitzea.

Beste muturrean ikastetxe bat dago non erabaki duten familiek ez dezatela parte hartu talde elkarreragileetan, bertako edukiak instrumentalak direlako, eta gurasoak ez direlako irakasle. Hori dela eta, ikastetxeko beste irakasle, edota irakasle eskoletako ikasleen bitartez antolatzen dituzte talde horiek.

Erantzun ohikoena, ordea, familiak talde horietan jarraikortasunez parte hartzeko duten zailtasuna da. Nahi bai, baina horien parte hartzea ez da jarraitua, eta horrek zailtzen du alde aurretik talde elkarreragileak antolatzea. Are, ikastetxe bat baino gehiagok bertan jarri du fokua: parte hartze hori handitzeko egindako ahaleginek ez dute fruiturik eman. Hori hala gertatzearen arrazoi nagusia familien eguneroko eginbeharrak aipatu dituzte: lana, batez ere.

Familien formakuntza da, gurasoen parte hartzea sustatzen duen beste jardueren artean, jarraipen adierazgarria duen beste bat. Dena den, horrek ez du talde elkarreragileen indarra. Zortzi ikastetxetan egiten dute, modu batean edo bestean. Hirutan tokian tokiko Udalek eskaintzen duten formaziora

mugatzen dira, eta urtean egun gutxi batzuetan baino ez da ematen. Aldiz, gainontzekoetan jarraikortasun handiagoa dute, ikasturte osoan. Horien artean ikastetxea dagoen erkidegoko hizkuntza ofizialak ikasteko formazioa da ohikoena, eta sustraituen dagoena. Horrez gain, familiek eskatzen dituzten bestelako jarduerak ere egiten dituzte ikastetxe batzuetan, modu puntualagoan: gidatzeko baimena ateratzeko, josten ikasteko, edota IKTekin⁴ lotutakoak. Monzongo Joaquin Costan haurrak zaintzeko zerbitzu bat jartzen dute formazioa dagoenean, IGEak antolatuta, euro batean.

Eskola ordutegia luzatzeko jarduerak ere ohikoak dira ikastetxe gehienetan. Bost ikastetxetan tutorizatutako liburutegiak dituzte, ikasleek eta haien familiek bertan parte har dezaten. Kasuren batean jarduera hori egiteari utzi diote azpiegitura arazoengatik, baina ez gogo faltagatik.

Gainontzeko hezkuntza jarduera arrakastatsuak atomizatuagoak daude ikastetxeen artean. Tertulia dialogikoak ohikoak dira ikasleen artean, baina horietan gutxitan parte hartzen dute gurasoek; aldiz, ikastetxe gutxi batzuetan familien arteko eztabaida dialogikoak egiten dituzte, interesatzen zaizkien gaietarako buruzko irakurgaien gainean. **Familia irakurleak hiru ikastetxetan** egiten dituzte. Bitan parte hartze handiegia ez duten arren, sustraitutako jarduera dela azaldu dute, eta bertan parte hartzen duten familiek oso positiboki baloratzen dutela. Hirugarrenean oso sustraitua dago.

Gaineratzekoa da ikastetxe batzuk bere hezkuntza jarduera arrakastatsuak garatuz joan direla. Hau da, Ikas Komunitateen teoriaren barruan agertzen diren jardueraz gain, Zuzendaritzako kideen ustez emaitza onak ematen dituzten jarduerak garatzen dituzte. Horiek ez dute bat egiten muin teorikoarekin, baina gainontzeko jarduerak elikatzen dituztela ondorioztatu dute Zuzendaritzako kide horiek, modu batean edo bestean. Horien artean Ruperto Medina ikastetxeko inauteriak egon daitezke; Ikas Komunitateko kideak auzo elkartearekin elkartzen dira, herriko inauterietako desfilean parte hartzeko. Ikastetxeko familien ehuneko handi batek parte hartzen duela gaineratu dute. Horrez gain, kirol jardueretan parte hartzea aipatu dute beste bakar batzuk, edota irrati saioa Belaskoenea ikastetxean, non hezkuntza komunitateko kideek parte hartzen duten.

⁴ Informazio eta Komunikazio Teknologiek

Familien parte hartzeari buruzko zailtasunen inguruan askotariko hausnarketak sortu dira, eta horietako batzuk hainbatetan errepikatu dira. Nagusia **familien denbora falta** da; hau da, familien eginbeharrek (lanak, nagusiki) zailtzen dute maiztasun handiagoz parte hartzea ikastetxe barruan. Ildo horretan sakondu du Santo Domingo ikastetxeko zuzendariak; zentro horretako familien bazterkeria egoeragatik, egunerokoa aurrera ateratzearekin nahikoa dutela hausnartu du. Behar horiek bideratuta izan arte, bestelako edozer bigarren mailan uzten dutela azaldu du. Lan egonkorra dutenen familietarako lan-baimenekin lotutako tresna bat garatzeko aukeraz mintzatu da Castroverde ikastetxeko Zuzendaritza.

Familia bakoitzaren eskola-esperientzia aipatu dute beste batzuk. Guraso askok ezagututako eskola eta Ikas Komunitateen eredua urrun daudela-eta ez dute parte hartzeko pausoa ematen, edota ikastetxea umeak zainduta egoteko eremutzat jotzen dutelako; hots, familiek hausnartzen dute ez dela zertan haien parte hartzea gertatu behar testuinguru horretan. Belaskoenean familien ezjakintasuna gaineratu dute. Haiengana heltzeko amu baten garrantzia nabarmendu dute, ikastetxeko aniztasuna barnebiltzen duen IGE baten beharraren ideian sakonduz.

Familien nekea ere aipatu du ikastetxe batek. Familien partetik eskatzen duen ahalegina nekean bihurtzen dela hausnartu dute Julian Maria Espinal Olcoz ikastetxeko kideek. Familia asko mantentzen dira Ikas Komunitate bezala amets egin zutenetik (etorkizunean nahiko luketen eskola irudikatu, eta bertara heltzeko helburuak finkatu zituztenetik) eta horrek horien parte hartzea makaldu duela gaineratu du.

